

**Aintzaldu daigun Agate Deuna
bihar da ta Deun Agate,
etxe honetan zorion hutsa
betiko euko al dabe.**

Euskaltegiko ikasleekin
bertsozaleak batuta
santa eskean etorri gara
makila eskuan hartuta.

Ohitura zarrak berrituz gatoz
Ama Lurra esnatzera
bizkortu dadin natura eta
indartu dadin euskera.

Aintzaldu daigun Agate Deuna...

Nahiz ta gehienok arrotz ditugun
igitai eta aitzurra
santa eskean egiten dugu
baserritarren itxura.

Makila eskuan kantuz gabilta
urratu arte zintzurak
esna daitezen porlan artean
dirauten landa apurrak.

Aintzaldu daigun Agate Deuna...

Ama lur, zaindu soloak eta
zaindu hegazti ta abere,
ta gu guztiok zaindu gaitzazu
natura gara geu ere.